

EUSKAL MUSIKUAK AMERIKETAN

Jose Antonio Arana Martija

Cuadernos de Sección. Música 6. (1993), p. 85-103.
ISSN: 0213-0815
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Comienza el autor su trabajo con un recuerdo especial al Padre Riezu, desterrado a America en 1936 y recientemente fallecido. Menciona después varios músicos de estirpe vasca de comienzos del siglo XIX y la presencia de importantes músicos vascos en la segunda mitad de ese siglo. Zubiaurre, Aldana, Iradier, Gaztambide, Aguirre; intérpretes como Gayarre y Sarasate y bertsolaris como Iparragirre, Mengiague y Otano. Ya en este siglo XX brillaron los compositores y profesores Ortiz San Pelayo, la familia Arrillaga y Ortigala pero sobre todo Mujika, Landazabal y San Juan. Como cantantes pasaron por América Constantino, Mardones, Aguirregabiria y Fagoaga, entre otros. Los números órganos montados por Amezua y Alberdi llevaron a América a muchos organistas de órdenes religiosas, entre los que destacan los franciscanos Iturriaga y Sudupe, los lateranenses Mallea y Madina, y posteriormente Azkue. En la postguerra varios txistularis formaron grupos de danza y se crearon coros con exilados y vascos ya afincados. Termina el trabajo con una referencia a la obra de J.C. Arriaga en América.

Bere hasieran egileak 1936an Ameriketara erbesteratu zuten eta berriki zendu den Aita Riezuren aipamen berezia egiten du. Gero, XIX. mendearen hasierako euskal jatorrizko musikari batzuk aipatzen ditu, bai eta mende horren bigarren erdialdeko euskal musikan garrantzitsuak: Zubiaurre, Aldana, Iradier, Gaztambide, Aguirre; Gayarre eta Sarasola bezalako interpreteak eta Iparragirre, Mengiague eta Otaño bezalako bertsolariak. Gure XX. mendean, Ortiz San Pelayo, Arrillaga familia, eta Ortigala musikagile eta irakasleak nabarmendu ziren, baina batez ere Musika, Landazabal eta San Juan. Kantarien artean, Constantino, Mardones, Aguirregabiria eta Fagoagak, besteak beste, Amerika ezagutu zuten. Bestalde, Amezua eta Alberdik antolatu zituzten organo anitzek erlijio-ordenetako organojole ugari eraman zuten Amerikara, beraien artean Iturriaga eta Sudupe frantziskotarrak, Malle eta Madina laterandarrak eta, geroago, Azkue nabarmentzen direlarik. Gerra ondoren txistulari batzuek dantza taldeak moldatu zituzten bertan finkaturik zeuden erbesteraturiko euskaldun batzuekin. J.C. Arriagaren lana Amerikan gaiari errenterentzia eginez amaitzen da lana.

The author starts his work with a special memory to Father Riezu, banished to America in 1936 and lately deceased. Then he mentions several Basque musicians of the early 19th century as well as the presente of relevant Basque musicians of the second half of that century: Zubiaurre, Aldana, Iradier, Gaztambide, Aguirre; interpreters such as Gayarre and Sarasate, and «bertsolaris» (Basque popular poets) such as Iparragirre, Mengiague and Otaño. In our 20th century, composers and professors such as Ortiz San Pelayo, the Arrillaga and Ortigala families, and particularly Mujika, Landazabal and San Juan, were outstanding. The singers Constantino, Mardones, Aguirregabiria and Fagoaga, among many others, visited America. Due to the high number of organs mounted by Amezua and Alberdi, many organists belonging to religious orders, such as the Franciscans Iturriaga and Sudupe, the Laterans Mallea and Madina, and Azkue later on, went to America. After the civil war, several «Txistularis» (Basque flute players) formed dance groups and choirs with exiles and Basque people who had already settled down. This study ends with a reference to J.C. Arriaga's works in America.

EUSKAL MUSIKUAK AMERIKETAN

Ausartia izan nintzen, benetan, Musikasten hitzaldi hau ematea onartu nuenean, eta hau bi arrazoiengatik: bata, liburu bat betetzeko beste mamia duen gaia oso zaila delako ordu erdiko hitzaldi batetan sartzea, eta bestea, nik baino hurbilagotik eta askoz ere hobe egin zezakeen Jose Luis Ansorena jauna hemen bertan dagoelako, 1986.eko irailean, *Euskor* aldizkarian, «Musicos vascos en America Latina» eman ziguna. Ez zen izango adiskide honentzat zaila beste Ameriketako eremu batzuetara heltzea. Eta hau da haseratik argitu behar dudana: nahiz eta eskuetan duzuen egitarauan Hego Amerika aztergai gisa agertu, Amerika osora heltzeko asmoa dut nere gaurko mintzaldi honetan.

Baina, tira! Denboraz estu ibiliko garanez, eta entzuleon eroapena ez dadin ahitu, neurriak zaintzeko idatzi egin dut gaur esan behar dudana, hitz egikeran ez nadin adarretatik joan kimuen hila, adar sendoak bai ditugu gaiaren arbolan igoteko. Euskal musikuak Ameriketara izan duten eragina eta arrakastaren gidoi bat baizik ez da izango gaurko hau, musikografia lanetarako garatu beharko genukeena. Baina horretan gera bedi gaurkoz. Nere lana diakronikoa da orokorrean, baina beste irizpide batzu ere erabili ditut, hala nola, jatorriak, musika moeten sailkapenak, erlijiosoen ordenak, migrazio edo/eta erbesteratze zioak, irakaskintzaren loturak eta jarraipenak, eta abar.

Parka nazazue, baina haseran bertan apurtzen dut nere buruari jarri diodan eskema hori. Beharrezkoa da euskal musiku guztien artetik gaur bat bereiztea, aurtengo martxoaren 27an hil zitzaigun Aita Jorge de Riezu, 1936an Argentinara erbesteratua eta hamasei urteren zehar, Euskal Herrira 1952an handik itzuli arte eten gabe lanean dihardu zuena. Omenaldi gisa eskaintzen diot nire lan hau, adiskide eta maisu izan nuen fraide honi, bera «ohorezko euskaltzain» et ni «euskaltzain urgazle» egun berean izendatuak izan bai ginen Arrasaten 1979an. Casto Inza Arbeo zen bere jaiotzako izena (1894-1992). Gerra hasi eta laster, 1936.eko azaroaren 3an Lekarozko komentutik ihesean joan zen Aita Donostiarekin batera, azken hau Toulousera eta gure Aita Riezu, esan dugunez, Argentinara. Hamabi urte lehenago Aita Donostia Argentinan egona zen, 1924ean bidaia bat egin bai zuen bertara. Gero, 1956an Buenos Aires-eko Ekin Argitaldariai kaleratu zuen Riezuren *Flor de canciones populares vascas*. Gure musikaren bibliografian oso ezaguna da baita ere *Nafarroako euskal kantu zaharrak* liburua. Eta nork ez du txalotzen Aita Riezuren argitarapenik oparoena, hots, hamaika tomatan kaleratu zuen Aita Donostiaren musika lan osoa? Orain zebilen beste erraldoiaren lan bat burutzen, *Euskal Eres-Sortaren* bigarren argitarapena, lehen edizioaren izenburu berdina erabiliz, baina bost edo sei tomatan Aita Donostiak bildutako kantu eta doinu guztiak argitaratuz. Goian bego gure etengabeko langilea.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

BIBLIOTECA MUSICAL BASKONGADA

AIRES

BASKOS



BUENOS AIRES

CASA EDITORA «LA BASKONIA», BELGRANO 1389

MCMXXII

Baina goazen Ameriketara gure musikuen aztarnen bila. Isidoro Fagoagak «Músicos argentinos de estirpe vasca» lanean dioskunez (Eusko Jakintza, 1949) XIX. mendearen haseran, 1806-1807 urteetan hain zuzen, Buenos Aires-eko Kabildoaren galerietan eta Plaza Nagusian, patrizioak eta bizkaitarrak osoturiko musika Bandak kontzertuak ematen zituzten, musikagailu-joleen artean Eusebio Inanue eta Jose Zakarias Txoroarrain euskaldunak zeudelarik. Gipuzkoarra zen handik zebilen Jose Tomas Arizaga, 1838an *Cancionero Argentino* delakoan kantu batzu argitara eman zituen. Eta gipuzkoarra zen Jose Antonio Pikasari, apeza, Argentinako hiriburuko katedralean Kapera Maisu zena, Espainiara erbesteratua izan zen 1818an bere loba eta ikasle zen Juan Pedro Esnaola-rekin, Pariera eraman zuelarik ikasle hau musika ikasketak burutzera. Amnistia batek zabaldu zizkion Argentinako atea eta hara itzuli zen, berehala musika Akademia bat sortuz. European erromantismoaren haseran egiten zen musika eraman zuen Pikasarik, lehen Gipuzkoan ikasitakoa eraman zuen bezala, eta Esnaola ere bide berdinetatik zebilela dirudi. Juan Pedro Esnaola Buenos Airesen jaioa zen 1808an eta bertan hil 1878an. Gazte gaztetatik egin zituen musika ikasketak osabarekin, eta gero Madrilen eta Parisen. Hamalau urte bakarrik zituen 1822an Argentinara itzuli zenean. Pianojole, musikegile eta irakasle trebe hau Buenos Aires-eko Musika Eskolaren zuzendaria izan zen eta bere musika lanen artean, Blas Parera espainiarrak 1813an egindako Argentinaren Himno Nazionala hobetu zuen, batzorde batek ofizialtzat hartu zuena 1828.eko irailaren 25ean. Gero aipatuko ditugun Alberdi eta Alkorta baino europearragoa dugu Esnaola, baina ez dizkiot honekin merituak Esnaolari gehitu nahi, alderantziz baizik, bertako etniaren kulturatik hurbilago zeudelako beste biak eta kolonizazioak zeramatzan aldaketetatik hurrunago. Hitz gutxitan esateko, V. mendeurren honetan ez dugu goraiatu behar Amerika europear bat bihurtzea. Guraso gipuzkoarrendik jaio zen Amanzio Alkorta Santiago del Estero-n 1805ean eta Buenos Aires-en hil 1862an. Gizon publikoa zen eta musikaz zaletua, baina kantu biltzaile eta musikegilea ere izan zen. Galduta omen daude 1822 eta 1828 bitartean egin zituen musika lanak, baina geroztikakoak hein batean argitaratu zituzten. Juan Bautista Alberdi, Tucuman-en 1810ean jaioa, Parisen hil zen 1884ean. Hau ere, bizibidez, ez zen musikua, politikoa eta idazlea baizik. Baina bere musika lanak ezagutuak dira, batzuren batzu 1838an publikatuak izan bai ziren. Mendearen haseran badugu Chilen ere euskal jatorrizko musiku bat, Jose Zapiola Cortes, Santigo hiriburuan, 1802an jaioa eta 1885ean bertan hila. Argentinara berriz itzuliz, eta mende erdi geroago, euskal jatorrizko bi musiku haundi ditugu. Alberto Williams Alkorta, Amanzioren iloba, Buenos Airesen jaio zen 1863an. Gobernuaren dirulaguntzarekin Parisera heldu zen Cesar Franck-ekin ikasketak egitera, eta 1899an jaioterrira itzuli ondoren piano kontzertuak eman zituen eta orkestrak zuzendu. Europako musika moldeak eraman zituen beste bat Julian Agirre izan zen, behar bada Argentinak XIX. mendean izan duen musikurik handiena. Buenos Airesen 1869an jaio eta bertan hil zen 1924ean. Deituratik aparte, badu euskal irakasleekin zerikusirik, Madrileko Kontserbatorioan Emilio Arrieta eta Jose Aranguren irakasleak izan bai zituen, piano, harmonia eta kontrapuntuan lehen sariak irabazi zituelarik (1885-1888). Jaioterrira itzultita, bertako Kontserbatorioko irakasle eta idazkaria izan zen. «Grieg argentinarra» deitzen omen zioten eta Wagner zaleen elkarteko buru ere izan zen. Baina herriaren musika bultzatzen ahalegindu zen Agirre eta 1912an Argentinako herri musikaren bilduma bat argitara eman zuen. Musika argentinarraren Eskola ere sortu zuen 1916an. Ikusten dugunez, euskal jatorrizko musikuak izan ziren Hego Ameriketara XIX. mendean, bertako herri musikarekin lotuak.

EL AREGLITO

(LA PROMESSE DE MARIAGE)



Chanson Havanaise, chantée par M^{lle}. TREBELLI du Th^{lre} Italien.

MUSIQUE ET PAROLES ESPAGNOLES D'EL MAESTRO.

PR: 5^f

IRADIER

PR: 5^f

*Paroles françaises de TAGLIAPICO. — du même Auteur: Ay Chiquita et la Mononita, Chansons havanaïses
Maria Dolorés, Chanson havanaïse.*

PARIS

AU MÈNESTREL 2^{ème} Rue Vivienne, HEUGEL & C^{ie} Edit^{rs} l'uis^{es} de la France et l'Étranger.

Baina Euskal Herrian jaiotako musikuak ere ibili ziren Ameriketatik XIX. mendean. Kronologiari begiratzeko badiogu, lehena Valentin Zubiarre Urionabarrenetxea (1837-1914) izan zen. Zortzi urte edo bete zituen Venezuelan, Caracaseran heldu bai zen 1853an. Pianojole eta irakaslea izan zen bai hiriburu horretan eta La Guayran, pianorako hainbat musikalan burutu zituelarik. Madrilera itzuli zen 1861ean. Bigarrena heltzean Enrique Aldana Olabarri (1829-1856) bibolinjole bilbotarra izan zen. Valparaiso-rako bidea hartu zuen 1855ean, baina Cubako La Habanan geratu zen kontzertuak eta ikastaroak emanaz. Laburra izan zen Aldanaren egonaldia Cuban, heldu eta hurrengo urtean, 1856an hil bai zen, Baina Fatima Olabarria Lozano alargunak jarraitu zuen zenduaren lana piano irakasketak La Habanan emanaz. Baina Europako erromantismoaren adierazlerik bitxia Sebastian Iradier Salaberri (1809-1965) izan zen. Marietta Alboni eta Adelina Patti tiple famatuekin ostera bat egin zuen Estatu Batuetatik (New York, Boston, Filadelfia, New Orleans) eta Mexico-tik ibili ondoren Cubara heldu zen 1861ean. Hemen asmatu zituen, bete batzuren artean, «La cachucha», «La paloma» eta «Arreglito» habanerak, azken hau Bizetek *Carmen* operan erabilitakoa. Habaneraren sortzailea dela Iradier dio Pio Barpjak, eta Felipe Pedrell-ek are gehiago: euskal zortzikoaren eritmotik datorrela habanerarena. Hala balitz badu Iradierrek ematen zaion baino garrantzi handiagoa gure musikaren historian. Madrilan egiten zen musikaren eredia eraman zuen La Habanara 1868an Joaquin Gaztanbide Garbaio nafarrak (1822-1870). Elkarte liriko baten zuzendari gisa joan zen Cubara eta handik Mexicora abiatu zen. Herri honi ereserki bat zuzendu ondoren Cadiz-era itzuli zen, baina gaisorik, urte berean hil bai zen. Garai honetako musikegilen artean aipatu behar dugun azkena Avelino Agirre Lizaola bilbotarra (1838-1901) da. Buenos Aires-era 1876an iritsiz, bertako Operaren Antzokiko orkestra zuzendu zuen eta Kontserbatorioa ere bai. Mendoza hirian hil zen. Bi nafar ospetsu hauek ere Ameriketatik ibili ziren: Sebastian-Julian Gaiarre Garzon (1844-1890) Buenos Aires-eko Teatro Colon delakoan «La Favorita» opera kantatu zuena eta gero Rio de Janeiron ere egonaldi bat burutu zuena, eta Pablo Sarasate Navascues (1844-1908). Estatu Batuetan hainbat kontzertu eman zituen 1889an eta Mexicon 1890ean.

Herri musika aipatu dugunez hiru bertsolariren berri emango dugu labur-labur, Ameriketara egondakoak noski. Jose Maria Iparragirre Balerdi (1820-1881) dugu lehena. Baionatik Buenos Airesera egin zuen bidaia 1858an eta hurrengo urtean Angela Kerexetarekin ezkondu zen Argentinako hiriburu honetan. Baina Ameriketako ia bizi guztia, 18 urte hain zuzen, Uruguay-en eman zuen. Soriano departamentura heldu zen 1859an, baina 1861ean Montevideon jarri zuen bere egoitza «Gernikako Arbola» izeneko kafetegi bat sortuz. Rincon de San Gines, Mercedes eta Daca izan ziren hurrengo egoitzak eta azkenean 1877an Buenos Aires-etik Bordelera itzuli zen. Buenos Airesen «Laurak bat» elkatea 1877.eko martxoaren 13an sortu zenean, han zegoen Iparragirre. Jose Mendiage iparraldeko bertsolaria dugu bigarrena, Alduden 1845ean jaioa eta Montevideon 1937an hila. Hemezortzi urte zituelarik Ameriketara joan zen 1863an. Ia ezezaguna den bertsolari honen berriak laster izango ditugu Pierre Xarritton euskaltzainaren eskutik. Iparragirreraren doinuak erabiltzen omen zituen gehien bat bere bertsuetan. Eta hirugarren bertsolaria, Pella Mari Otaño Barriola (1857-1910) zizurkildarra. Bi ostera egin zituen Ameriketara, lehena 18 urte zituenean, 1875an, eta bigarrena 1888an. Bigarren honetan izan zuen bere emaitzarik oparoenena. Buenos Aires-eko «Laurak bat» euskal etxean euskarazko ikastaroak ematen zituen Otañok, baina bertsogintzan ere ibili zen eta 1904an *A/ka* izeneko bilduma argitara eman zuen Buenos Airesen, Lehentxoago, 1900ean, Ortiz San Pelayo-rentzat *Artzai mutila* operaren gidoia idatzi zuen. Uruguay eta Brasiletik ere ibili zen Pella Mari Otaño.

*A mi querido primo Antonio Elisequi
Me recuerda desde California. S. Arrillaga
San Francisco 25 marzo 1913.*

ZORTZICO -- GRAZIELA

(Basque)

(Habanera)

TWO SPANISH CHARACTERISTIC PIECES

BY

SANTIAGO ARRILLAGA

Price \$1.00



PUBLISHED BY

ARRILLAGA MUSICAL COLLEGE


2315 Jackson St. San Francisco

TRADE SUPPLIED BY

SHERMAN CLAY & CO

San Francisco, Cal.

Mendearen azken urteetan Ameriketarako barne deia izan omen zuten euskal musikagilek. Felix Ortiz San Pelayo (1856-1941) azpeitiarrak hiru osterara egin zituen Buenos Airesera. Pianojole eta orkestra zuzendari gisa joan zen 1880an. Itallatik ibili ondoren berriz joan zen hiriburu hartara 1885ean bere musika lanak Teatro Nacional zelakoan entzutera emanaz. Euskal Herrira 1894ean etorri zen eta berriz Buenos Airesera itzuli, non *Artzai* mutila opera estreinatu zuen 1900ean Teatro Colon delakoan, berriz ere bertan 1927an opera bera antzeztua izan zelarik. Jesus Arriola (1873-1931) elorriarra 1893an Bogotara joan zen, bertako katedraleko organulari izateko deitua. Gero Medellin eta Antioquian ere orkestren zuzendana izan zen eta kontserbatorioetan irakasle. Agustin Azkunaga (1885-1957) Otxandiokoa Quitora iritsi zen 1899an San Franzisko elizan organularia izan zelarik. Ipar Ameriketara ere heltzen zaigu bertan geratzeko ezagutzen dugun lehen musikua, Santiago Arrillaga Ansola (1847-1915) tolosarra. Californiako San Franzisko hiriburuan «Arrillaga Musical College» sortu zuen eta bertako parrokia batetan ere organulari izan zen 25 urtetan. Bost seme-alaba izan zituen, denak musikua: Vicente, Elena, Leo, Graziella eta Zezilia, pianojoleak hain zuten. Jazinto Ortigala (1877-1958) Tafallako semea dugu XIX. mendeko zerrenda zarratzen duena. Felipe Gorritirekin ikasketak burutu ondoren, Madriliko Kontserbatorioan egin zituen ikasketak, 1901ean Buenos Airesera joan zelarik piano irakasle. Rosario hirira joan zen 1908an. eta bertan hil zen.




Gaiareren ildotik jarraitu zuten kantariak ditugu orain aipagarri. Bilbon jaio zen Florencio Constantino Carral (1868-1919) eta Mexico-ko eroetxe batetan hil. Argentinara heldu zen 21 urte zituenean eta Buenos Aires-en kantu ikasketak burutu zituen. Montevideon eman zuen lehen kontzertua eta Europatik operak kantatzen ibili ondoren Estatu Batuetara iritsi zen New York-eko Metropolitan-en ere abestu zuelarik. Felix Garcia Arzeluz, Buenos Airesen jaiok musikatu zuen «El roble y el ombú» zortzikoa (1914) kantatu zuen Constantinok hiriburu hortako Teatro Colon-en. Jose Garcia de Mardones Ortiz de Pereda (1868-1932), arbar baja dugu hurrengo kantaria. Sagi-Barba Elkartearekin heldu zen Buenos Aires-era eta bi urte bertan bizi izan zen 1904tik 1906ra bitartean. Italian kantu ikasketak egin ondoren, berriz joan zen Buenos Aires-era 1907an. Estatu Batuetatik ibili zen 1909tik 1914ra Bostoneko Opera Teatrotan lehen mailako baja izan zelarik. Bertan grabatu zituen 1910ean disko batzu, hauetatik bi nik New York-en aurkitu eta erosi nituenak 1985ean. Azkenean, 1917tik 1926ra New York-eko Metropolitan Opera Hause-eko lehen baja izan zen. Hego Ameriketako Peru, Chile, Uruguay, Argentina eta Cubako Opera Teatrotan ere kantatu zuen Mardonesek, Cubako kontzertuetan Ignazio Telleria (1880-1944) Idiazabalgo semeak pianoz lagundu ziolarik. La Habanara 1910ean heldua zen Telleria pianojole hau. Jesus Agirregabiria Onandia tenorak (1892-) «James Gabiria» izenordea erabili zuen karteletan. Amerika osoa korritu zuen, operak kantatuz, 1924tik 1928ra. Donostiara itzuli bat egin ondoren, berriz joan zen Estatu Batuetara 1933an handik berriz Hego Ameriketako bira bat aginez.



Tenora dugu baita Isidoro Fagoaga Larretxe (1893-1976) ere. Nafar hau Argentina joan zen gaztetan, merkatal munduan eta banketxe batetan lan eginez. Kazetaritzan sartu zen eta 1956tik hasita Buenos Aires-eko *La Prensa* egunkarian azaldu zituen bere artikuluak, gehienak musikologiaz idatziak. Hiriburu honetako Teatro Colon-en kantatu zuen Wagner-en *Parsifal* 1925ean eta Guridiren *Amaya* 1930ean. Eta hiriburu berean Ekin argitaletxeak kaleratu zion *Pedro Garat, el Orfeo de Francia* liburua 1948an. Fagoagak Buenos Airesen Wagner eta Guridiren operak kantatu zituenean, Colon antzokiaren zuzendaria euskal deiturako musiku bat zen, hots, Floro Maria Ugarte, Buenos Airesen 1884ean jaioa, Parisen Lavignac-ekin ikasketak egin zituena. Argentinan izan ditugu beste euskal musiku batzu ere, hala nola, Antonio Reinoso (1869-1912) bibolinjole bilbotarra, Buenos Airesera 1890ean heldua, Feliziano Latasa (1871-1906) donostiarra, orkestra zuzendaria, Luis V. Otxoa (1878-1958) arabarra, Bernardo Iriberrri (1882-) iruñearra, Inozenzio Aguado Agirre (1887-1975), Jesus Garcia Leoz (1904-1953), eta abar.




Tolosan jaio eta Uruguay-ko Tucuaembón hil zen Jose Tomas Mujika Gaztañaga (1883-1963). Gorriti eta Mokoroarekin egin zituen lehen musika ikasketak eta gero Madrilen eta Belgikan. Uruguay-ra heldu zen 1913an, eta 1916an Granados Kontserbatorioa sortu zuen. Kantu Korralaren irakaslea ere izan zen 1937an Zorrilla Lizeoan. Uruguay-ko independentziaren mendeurrena 1930ean ospatu zenean, *Ayacucho* poema sinfonikoa estreinatu zioten Montevideon. Zazpi urte lehenago jaioa zen hiriburu berean, 1923an, Mujikaren ikaslea izango zen Hector Alberto Tosar Errekart. Mexicora bagoaz, bertan hil zen pianojole nafarra, Emiliana Zubeldia Inda (1888-1954) aipatu behar dugu. Sonorako Unibertsitatean irakaslea eta Ameriketean hainbat piano kontzertu eman zituen andra honen gogoramena hemen gurekin daukagun Leticia Varelak dakarkigu. Nafarra dugu baita ere Luis Miguel Zulategi (1898-1970), 1924ean Colombiako Medellinera joan zen musikegile, irakasle eta musikologoa. Urte bete lehenago joan ziren La Habanara adinez antzekoak ziren German Maria Landazabal Garagarza (1884-1953) eta Pedro Eugenio San Juan Nortes (1886-1976). Landazabal arabarra Argentinarentz abiatzen da eta 1927tik hil arte Gualeguay herrian jarraitzen du piano irakaskuntzan eta musikagintzan. Donostiarrak, ostera, bizitza eginkorragoan dihardu. La Habanako Orkestra Filarmonikoa sortzen du eta Debussy, Ravel, Falla eta garai hartako beste musiku batzuen lanak estreinatzen ditu. Hala eta guztiz ere, Cubako herri musikari bultzada bat ematen dio bere lanekin: *Liturgia negra*, *La Macumba*, *Comparsa yoruba*, aipatu bigarrena Musikasten aurtan entzungo duguna. Mexicoko Orkestra Nazionala ere zuzendu zuen eta gero Los Angeles, San Franzisko eta New York-ekoak. Europako orkestrak zuzendu zituen 1932tik 1937ra eta berriaz Estatu Batuetara joan ondoren Princeton eta beste Unibertsitate batzuetan irakasle izanik jarraitu zuen.



Elizgizonen aldi bat datorkigu 20 eta 30 hamarkaldietan. Ordurako Aquilino Amezuak eta honen ikasle izandako Lope Alberdi eta Antonio semeak hainbat organu eraiki zituzten Cuban, Panaman, Colombian, Costa Rican, Venezuelen eta beste Ameriketako nazio batzuetan. Organu horiek erabiltzeko organulariak bidaltzen hasi ziren erlijiosoen ordenak. Hala heldu zen Buenos Airesera 1923an Joaquin Ardaiz Zuasti (1896-1970) Saturnino de Legarda izenarekin ezagutua kaputxinoetan. Pompeyako Ama Birjinaren Santutegian organulari izan zen Nafarroara 1964ean itzuli arte. Francisco Huarte Maritoren (1907.-) karmeldarren artean Bernardo de Huarte izena erabili zuenak Argentinan egin zituen Teologia ikasketak eta Arturo Trigueros bizkaitarrarekin egin zituen piano ikasketak, 1925 urtean heldu zenetik. Buenos Airesen Karmengo Ama Birjinaren elizan izan zen organulari eta kontzertuak emateko asmoetan Santa Zezilia Elkarte Filarmonikoa sortu zuen 1941ean. Chile, Peru, Ecuador eta Colombian kontzertuak eman zituen eta Quiton, bereziki, entzuten zen organu eta orkestrarako lehen kontzertua. *Inti Yan* izeneko balleta musikatu zuen 1955ean eta 1960an Buenos Airesera itzulita *Misa imperial incaica* konposatu zuen 1967an. Brasileran heldu zen 1930ean Creascencio Iruarrizaga Agirre (1904-1986) eta Sao Paulon organulari izan ondoren, eginkizun berberarekin jarraitu zuen Rio Claro, Batatain, Bello Horizonte, Pouso Alegre eta Rio de Janeiroko organuetan. Brasileko herri musika erabili zuen bere musikalanetan. Igorreko musiku familia honetatik beste anaia bat ere Estatu Batuetan ibili zen musikagintzan: Francisco Iruarrizaga Agirre (1893-1981). Chicagon, lehendabizi, eta gero California, Texas, Arizona estatuetatik ibili zen, Los Angeles, Washington, Momence, eta Fort Worth hirietako elizetan organularia izanik. Baina Frantziskotarren ordena izango da, behar bada, Ameriketara organularirik gehien bidali duena. Luis Francisco Azurmendi Olabe durangarra (1842-1888), Casimiro Zubia Izurategi eskoriatzarra (1861-1932), Lucas Garteizgogeasko Bengoetxea gernikarra (1844.-), Baldomero Amenabar Egia otxandiarra (1873.-), Jose Maria Arregi Arrimaldo areatzarra (1879-1955) gaztetan Perura joana eta 1914an Arantzazura itzulia, Gregorio Balzategi Mujika oñatiarra (1879-1937), Luis Agirrebeña Lezeta soraluzetarra (1894.-), Benito Enparantza Aranburu oñatiarra (1897.-) eta Jose Martin Arrue Galdos aretxabaletarra (1884-1960). Gure gerra aurrean joandako frantziskotarren artean osperik handiena lortu zuena Benigno Iturriaga Astelarra (1908-1989) kortezubitarra izan zen. La Habanako komentuan organulari eta kontzertulari famatua, musikologoa, musikegilea, 1939an Arantzazura itzulia.

Baina Oñatiko Laterandarren komentutik gerra aurrean joandako bi fraide aipatu behar ditugu bereziki. Jose Maria Ugarte oñatiarra eta Fernando Urkia arbizuarra Saltako komentuan organulari eta musikegile egon baziren ere, beste bi izan ziren ospe handia lortu zutenek: Mallea, Munitibarrekkoa eta Madina Oñatikoa. Luis Mallea Arejita-Belaustegi (1908.-) Argentinako Saltara heldu zen 1931an, eta gero Rosarioko San Migel parrokan izan zen organulari. Buenos Aires-eko eliza batetan eginkizun horretan jarraitzen zuelarik, 1939an, berak zuzentzen zuen ahots zurien koru bat Lopez de Mendizabalek erbesteratuekin sortu zuena batu zuen «Lagun Onak» koru famatua sortuz, Malleak berak 1967arte zuzendu zuena. Euskaldunen alde egiten zuen lanagatik, Estatu Batuetara bidaltzea lortu zuen Francok eta New York-eko Bronx-en jarraitu zuen organulari gisa Oñatira 1977an itzuli arte. «Lagun Onak» korua sortu zenetik 50. urtea ospatzeko, Bilboko Arriaga Antzokian kontzertu bat eskaini zuten argentinarrek 1989.eko urtarrilean. Beste laterandarra Franzisko Madina Igarzabal (1907-1972) dugu. Mallea baino urte bete beranduago heldu zen Saltara, 1932an. *Rapsodia salteña* konposatu zuen orduan. Buenos Aires-eko Champagnat Ikastetxera etorri zen 1943an eta hurrengo urterako bukatua zuen Musikasten entzungo den *La cadena de oro* (1944). Sasaki-Naski taldea sortu zuen 1946an eta Saltara berriz itzulita 1947an «Coro Polifonico de Salta» sortu



zuen eta bertan konposatu zituen Nikanor Zabaleta-rentzat *Sonata Vasca, Suite, Concierto para arpa y orquesta*. Hau ere, Mallea baino lehenago, Estatu Batuetara bidalia izan zen 1955ean, New York-en organularia izan zelarik, non Edwin Kalamus-ek musikalanak argitaratzea lortu zuen. Hugo Wast idazlearen testuekin musikaturako *Flor de durazno* opera 1957an estreinatu zen La Plata hirian. Aita Madina izango da, behar bada, Argentinako folkloreak gehiago arduratu izan den euskalduna. Chilera heldu zen 1934ean Federico Bergara Navarro (1908-1973) kaputxinoen artean Angel de Arruazu izenarekin ezagutua. Paine, Santiago eta Viña del Mar hirietan organularia izan zen eta Constitución hirian «Coro Excelsior» sortu zuen. Chileko folkloreak hainbat musikalan burutu ondoren Nafarroara itzuli zen 1967an. Gerra aurreko giro honi amaiera emateko esan dezagun Maurice Ravelek (1875-1937) Canada eta Estatu Batuak puntatik puntara korritu zituela 1928an. Handik itzulita konposatu zuen Bolero famatua 1928.eko azaroaren 20an Ida Rubinsteinek estreinatua. Andre Navarre (1911-1988) biolontzelistak ere 1930ean Estatu Batuetan, Canadian eta Mexicon eman zituen kontzertuak.



Baina zoritarreko gerra etorri zitzaigun 1936an. Erbesteratuak heltzen ziren heinean, han sortzen ziren gure kulturaren guneak, musika eta dantzetakoak gehien bat azpiegiturak jadanik eginak zetozelako. Hego Ameriketako errepublikak izan ziren hartzailerik onenak. Caracasek babestu zituen, esate baterako, Sandalio de Tejada Sarabia, Alberto Iriarte, Joseba Badiola, Silbestre Isasi, Julian eta Segundo Atxurra, Sabin Zenarruzabeitia eta Jon Oñatibia txistsulariak. Jon Oñatibia Audela (1911-1979) «Eresoinka» taldetik zetorren eta 1941ean Caracaseko Euskal Etxean euskara, txistua eta dantzak irakasten hasi zen. Jose Antonio Agirre Lehendakariak deituta Estatu Batuetara joan zen Jon Oñatibia 1954ean eta han jarraitu zuen Oiartzunera 1960an itzuli arte. «Eresoinka» taldetik Caracasera etorri zen beste bat Paulin Urresti kantaria izan zen, zeinek 1940an «Pizkunde Abesbatza» sortu zuen.

Buenos Airesen gure koruen tradizioa lugeagoa zen. Sociedad Euskariana zelakoak bere Orfeoia sortu zuen 1892an eta 1899an lehen aipatu dugun Laurak Bat Elkarteak sortu zuen berea. Baina bizitzarik luzeena izan duena 1939an Luis Malleak sortu zuen «Lagun Onak» izan da orain ere bizirik bai dago. Malleak utzi zuenean, 1967an, Segundo Galarzak (1913-) hartu zuen zuzendaritza. Ordurako hiriburu honetara etorria zen 1950ean Pedro Jose Iguain (1896-1979) beasaindarra, Errukizko Amaren parrokiaren organularia izana. Baina baditugu beste herrialde batzuetan ere euskal musiku erbesteratuak. Alejandro Olazarán Salanueva (1894-1973) kaputxinoen ordenan Hilario Olazarán de Estella ezizena eraman zuena, Chilera heldu zen 1936an. Santiago, Concepción eta Viña del Mar hirietako elizetan organularia izan zen, eta piano kontzertuak ere eman zituen 1963an Iruñeara itzuli arte. Chilean egon zen baita Dionisio Preciado ere, 1949tik 1959 arte. Erbesteratua heldu zen Cubara Estanislao Sodupe Osinalde (1915-1973) eta La Habanako San Franzisko elizaren organularia izan ondoren Estatu Batuetara jo zuen Pietro Yon eta Vittorio Giannini maisuekin organu eta musikagintzako tituluak lortzera. Ipar Ameriketan hainbat organu kontzertu eman ondoren Euskal Herrira itzuli zen 1960an. Julen Ezkurra Fernández de Fontecha (1930-) Peruko Iquitos hirira heldu zen 1956an, non Kontserbatorio bat sortu zuen eta koru haundi bat ere zuzendu. *Suite incaica* eta *Danzas indias* liburu batetan eman, zizkigun, 1963an Euskal Herrira itzuli baino lehen. Jose María San Martín Fernández de Pinedo (1927-1977) gasteiztarrek hainbat piano kontzertu eman zituen Hego Ameriketan 1961ean. Jose Azarola Aldaz (1907-1955) pianojolea ere aipatu behar dugu Mexicon hil zena. Hemen jaio zen, gurasoak lekeitiarrak zirelarik, Jose María Etxebarrieta Carrera (1913) zeinen *Kantak* entzungo ditugun Musikaste honetan.

Ezin dugu ahaztu Jose Manuel Azkue Aginagalde (1927) organularia, 1956an Fultonera deitua. New York-eko Syracuse Unibertsitatean bete zituen azken ikasketak eta bertan jarraitu zuen piano katedran 1975ean Donostiako Andra Maria parrokiaren organulari izateko etorri arte. Joaquín Achúcarro Arisquetak (1932) zortzi aldiz korritu du Amerika osoa piano kontzertuak emanaz eta Dallas-eko Unibertsitatean piano katedra dauka. Josu Gallastegi (1942) Venezuelara heldu zen 1962an eta handik Estatu Batuetara joan zen orain New York-eko «Ameritan Ballet Theatre» delakoan pianojolea delarik. Jose Luis Salbide ere, Colombiara 1980an heldua, orkestra zuzendari gisa kontzertuak eman ditu Ameriketan.

Nere hitzaldi hau bukatzeko bihotzeko gogoramen bat zor diot Luis Elizalde Otxoa (1940) adiskideari, hemen egiten ari zen musikazko lan guztia utzita, Boliviako Potosira joan bai zen 1985ean misiolari gisa. Goraintziak hemendik Ameriketara Elizalde musiku eta adiskideari.



Eta bukatzeko, orain bai benetan, hitzaldiaren haserako garaira goaz Juan Crisostomo Arriaga Balzola (1806-1826) gogora ekartzeko. Bilbotar honi buruz egindako biografia eta bere musikaren azterketarik onenetarikoa Renetik etorri zaigu Barbara Rosen-ek Idatzitako *Arriaga, the Forgotten Genius* liburuan (1988). Gainera, Wisconsin-eko Unibertsitatean dago Arriagaren lanen artxibo bat eta «Arriaga Society of America».

Amaitu dut. Mila esker zuen eroapenagatik.

Erreterria, 1992.5.18